

Hezkuntza publikoan lan baldintzak hobetu. Hemen eta orain erabakita.

Hezkuntza publikoko greba zikloa erregistratu dute LAB, STEILAS, ELA eta CCOOek

EAEko Hezkuntza sailari lan zamak arintzeko, erretiroa aurreratzeko, erosahalmena berreskuratzeko, enplegua egonkortu eta bermatzeko zein lan osasuna, euskara eta berdintasuna bermatzeko neurriak eskatzen dizkiote.

Gaur, Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzaren aurrean Hezkuntza publikoan aritzen diren Sukalde eta Garbiketako, Haurreskolak Partzuergoko langile zein Irakasleen greba dinamika erregistratu dute sindikatuek.

EAEko Hezkuntza Sailari hezkuntza publikoa indartu eta inbertsioa publikoa handitu dezan exijitu diote, langileon lan-baldintzak hobetu eta eskola publikoa erdigunean jarri dezan. Izan ere, arestian aipatutako kolektiboetako lan hitzarmenak iraungita daude, hezkuntza sail berria izanik ere aldebakarrez hartutako erabakiak hartzen jarraitzen du langile zein hezkuntza komunitatearen kalteetan eta sindikatuon eskaerei muzin eginez eduki nahikorik gabe negoziazio mahaiak deitzen jarraitzen du.

2009koak dira Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile eta kudeaketa alorreko zein Sukalde eta garbiketako langileen hitzarmenak eta 2010ekoa irakasleena. Beraz, 15 urte luzeren ondoren, bada garaia lan hitzarmenak hemen eta orain negoziatu, atzerapausoak bertan behera utzi eta langileon lan baldintzak hobetzeko.

Nahiz eta kolektibo bakoitzarentzat aldarrikapen zehatzak izan, badira sindikatuek adostutako zazpi aldarrikapen amankomun: geroz eta handiagoak diren **lan-zamak** arintzeko neurri zehatzak adostea, erretiroa aurreratzeko plantillen **gazteberritze** plana garatzea, galdutako **erosahalmena** berreskuratzea, **enplegu publikoa egonkortzea** eta jaiotza

tasaren gorabeherak aprobetxatuz aldebakarrez erabakitzen ari diren ikastetxe publikoen fusio eta itxieren aurrean enplegua bermatzea.

Era berean, Hezkuntza publikoko sistema osoa **euskaldunduko** duen hezkuntza politikak abiaraztea, langileon **lan-osasuna** zainduko eta bermatuko dituzten azterketa eta neurri zuzentzaile adostuak ezartzea eta kalitatezko **berdintasun** eta hezkidetzaren plan egonkorak garatu ahal izateko baliabideak jartzea.

Beraz, irakasleak urtarrilaren 22an eta 23an eta otsailaren 26 eta 27an; Haurreskolak partzuergoko langileak urtarrilaren 28 eta 29an eta otsailaren 12an eta 13an; eta Sukalde eta garbiketako langileak urtarrilaren 30 eta 31n eta otsailaren 19 eta 20an mobilizatzerara deitu dituzte.

Greba egunez gain ostiraletan ere mobilizatu dinamika martxan jarri dute gaurdanik, ikastexeeetan mobilizazioak deituz.

Sindikatuak hezkuntza publikoko langileei greba eta mobilizazio hauek babesteko deia luzatu diete.

Izan ere, mobilizazioen eskutik etorriko dira sindikatuok adostutako aldarrikapenak lortzeko negoziaketak errealak.


Euskal Herrian, 2025eko urtarrilaren 17an

LAB

steilas

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

CCOO
irakaskuntza



Hezkuntza publikoan lan baldintzak hobetu. Hemen eta orain erabakita.

LAB, STEILAS, ELA y CCOO registran el ciclo de huelgas en la educación pública

Piden al departamento de Educación de la CAV medidas para aliviar las cargas laborales, adelantar la jubilación, recuperar el poder adquisitivo, estabilizar y garantizar el empleo, así como garantizar la salud laboral, el euskera y la igualdad.

Hoy, los sindicatos han registrado ante la Delegación de Educación de Bizkaia la dinámica de huelga del personal de Cocina y Limpieza, del Consorcio Haurreskolak y de docentes en la enseñanza pública.

Exigen al Departamento de Educación de la CAV que refuerce la educación pública y aumente la inversión pública para mejorar las condiciones laborales del personal y sitúe a la escuela pública en el centro. De hecho, los convenios laborales de los colectivos anteriormente mencionados están caducados, a pesar de ser un nuevo departamento de educación sigue adoptando decisiones unilaterales en perjuicio tanto del personal como de la comunidad educativa y sigue convocando mesas de negociación sin suficiente contenido y dejando a un lado demandas de los sindicatos.

Los convenios del personal educativo y del de gestión de personal del Consorcio Haurreskolak tanto el de cocina y limpieza son del 2009 y el del personal docente de 2010. Por tanto, después de 15 largos años, es hora de negociar aquí y ahora los convenios laborales y dejar atrás los retrocesos y mejorar las condiciones laborales de los diferentes colectivos.

Aunque se trata de reivindicaciones concretas para cada colectivo, existen siete reivindicaciones comunes acordadas por los sindicatos: acordar medidas concretas para aliviar las crecientes **cargas de trabajo**, desarrollar el **plan de rejuvenecimiento** de las plantillas para anticipar la jubilación, **recuperar el poder adquisitivo** perdido, **estabilizar el empleo público** y garantizar el empleo frente a las fusiones y

cierres de centros públicos que se están decidiendo unilateralmente aprovechando los vaivenes de la tasa natalidad.

Asimismo, poner en marcha políticas educativas que **euskaldun**en todo el sistema educativo público, establecer estudios y medidas correctoras consensuadas que velen y garanticen la **salud laboral** de las personas trabajadoras y poner los medios para poder desarrollar planes estables de **igualdad** y coeducación de calidad.

Por tanto, el personal docente está llamado a movilizarse los días 22 y 23 de enero y 26 y 27 de febrero; el personal del Consorcio Haurreskolak los días 28 y 29 de enero y 12 y 13 de febrero; y el personal de cocina y limpieza los días 30 y 31 de enero y 19 y 20 de febrero.

Además de las jornadas de huelga, desde hoy se ha puesto en marcha una dinámica de movilización también los viernes, convocando movilizaciones en los centros de enseñanza.

Los sindicatos han hecho un llamamiento a las y los trabajadores de la enseñanza pública para que apoyen estas huelgas y movilizaciones.

Porque de la mano de las movilizaciones vendrá la negociación real para conseguir las reivindicaciones acordadas por los sindicatos.

Euskal Herrian, 2025eko urtarrilaren 17an

